

2012 · UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBA

Enpresaren ekonomia

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



EUSKAMPUS

Nazioarteko Bikaintasun Campus
Campus de Excelencia Internacional

en la red de



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2012ko UZTAILA

ENPRESAREN EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2012

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

A AUKERA

A1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

Irakur ezazu testu hau, eta erantzun iezaiezu galderari

CIKAUTXO KOOPERATIBAK 9,5 MILIOI FAKTURATUKO DUEN JOINT-VENTURE BAT SORTU BERRI DU.

Bizkaiko Cikautxo **kooperatibak** —Mondragon Corporation taldean dago— Indiako Taurus Flexibles hodi-ekoizlearekin egin berri duen akordio baten bidez, Indiako Pune hirian kokaturiko negozioaren % 50 eskuratu du.

Alianza horretatik sorturiko "Cikautxo Taurus Flexibles Pvt. Ltd" **enpresa** berriak automobilgintza-merkatuak hodiak egingo ditu. Gaur egun, 200 langile ditu, eta 9,5 milioi euroko salmentak aurreikusten ditu 2012ko martxoan bukatzen den ekitaldi fiskalerako.

Joint-venture hau Cikautxo enpresak automobilgintzaren ekoizle garrantzitsuenen eskaria bermatzeko abiarazia duen **globalizazio-prozesuaren** barruan kokatzen da.

Indiako fabrika berria Cikautxoren bigarrena izango da Asian, zeren eta aurten bertan hasi baita Cikautxo Txinan ekoizten, Mondragon taldeak Kunshan-en, Shanghaitik gertu, duen industrialdeko fabrikari.

Cikautxok urtean 220 milioi eurotik gorako **fakturazioa** du, eta, Euskal Herriko eta Aragoiko fabrikez gainera, **ekoizpen**-instalazioak ditu Brasilen, Txekian, Eslovakian, Txinan eta orain Indian ere.

Galdekizunak:

- Azaldu eta iruzkindu testuan azpimarratuta agertzen diren hitzen esanahia.
- Eman itzazu lau faktore, enpresa industrial baten kokalekua aukeratzeko orduan eragina dutenak.

A2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

Kutxamet enpresak metalezko kutxak ekoizten ditu. Enpresak 12.000 unitate ekoiztu eta saltzeko ahalmena du. Horretarako, 200.000 euroko kostu finkoak ditu, eta unitate bakoitzeko kostu aldakorrak 40 € dira. Enpresak bere produktua unitateko 60 €-an saltzen du.

- Zein da enpresa honen itopuntua (puntu hila)? Zein da itopuntuaren esanahia? Egizu itopuntuaren irudikapen grafikoa, eta adierazi zein diren galeren eta irabazien eremuak.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2012ko UZTAILA

ENPRESAREN EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2012

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

- b) Enpresa honek ekoizpenean izan dituen arazoak direla eta, haren benetako ekoizpena ekoizpen potentzialaren % 80an geratu da. Hori kontuan hartuta, zein izan da enpresaren emaitza ekonomikoa?
- c) Hobekuntza teknologikoen ondorioz kostu aldakorrak % 10 murriztuko balira, zein izango litzateke itopuntu berria? Irudika ezazu grafikoki.

A3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

NATURALIST, S.A. enpresak esnekiak ekoizten ditu, eta, horretarako, lehengai batetik 180.000 kg kontsumitzen ditu urtean. Bere hornitzaileei 12 eskaera egiten dizkie urtean. Hornikuntza-epea 5 egun da, eta 1.000 kg-ko segurtasun-stocka du enpresak.

Datu horiek jakinda, kalkula itzazu hauek:

- a) Eskaera-puntua
- b) Errotazio-indizea
- c) Egin ezazu adierazpen grafikoa
- d) Zer gertatuko litzateke hirugarren eskaera 3 egun atzeratuko balitz? Adieraz ezazu egoera hori aurreko atalean egindako grafikoa.

A4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu

TXIRRIST SA enpresak patineteak ekoizten ditu. Gurpiletarako behar dituen errodamenduak enpresan bertan egiten ditu, eta behar duen makineria berriztatu beharrean dago. Hori dela eta, makineria erosi eta berak ekoizten jarritzea edo beste enpresa bati errodamenduak erostea aztertzen ari da. Makineria berriagatik 24.000 € eskatzen diote, eta unitate bakoitza ekoizteak 0,03 €-ko kostu aldakorra izango luke. Errodamenduak erosiz gero, berriz, errodamendu-enpresa batek 0,06 € eskatzen dio errodamendu bakoitzagatik. Patinete bakoitzak 20 errodamendu behar ditu.

Erantzun galdera hauei:

- a) Salmenten aurreikuspena 36.000 patinete bada, zer komeni zaio gehiago TXIRRIST SA-ri, berak ekoiztea errodamenduak edo beste enpresari erostea? Arrazoituz erantzuna grafikoki eta analitikoki.
- b) Salmenta-aurreikuspenak kontuan hartuz (36.000 patinete), zenbatera jaitsi beharko liokete makina berriaren prezioa TXIRRIST SA-ri errodamenduak fabrikatzearen kostua eta erostearen kostua berdina izateko?
- c) Zein da kostu finkoen eta kostu aldakorren arteko desberdintasuna? Ipini bakoitzaren adibide bat.

A5. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1,5 puntu

Defini itzazu finantza-ratio hauek:

- Diruzaintza edo altxortegia
- Bermea
- Zorpetzea



B AUKERA

B1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

Bilboko bi turismo-bulegotan, datu hauek ditugu:

Arriaga kalekoan, 32.760 turistaren kontsultei erantzuten diete urtean; 3 langilek osatzen dute lantaldea, eta bakoitzak 1.820 orduz lan egiten du urtean. Unamuno kalekoan 66.560 turisten kontsultei erantzuten diete urtean; 4 langilek egiten dute lan 260 egunez urtean, 8 orduz egunean.

- Zein da lan orduko produktibitatea bi bulegoetan?
- Egin ezazu produktibitateen konparazioa ehunekotan (%)
- Arriaga kaleko bulegoaren lanaren produktibitatea % 25 handitu nahi badute, kalkulatu zenbat kontsultari erantzun beharko dieten. (lanordu kopurua mantenduta).

B2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

Bizikletak ekoizten dituen enpresa batek 3 inbertsioren artean hautatu behar du, eta 150.000 € ditu inbertsioa egiteko. Egitasmoak honako hauek dira:

- Hasierako gastua 60.000 € litzateke, eta, hurrengo hiru urteetan, 1.000 bizikleta ekoiztuko lituzke urtero, eta bizikleta bakoitza 90 €-an salduko litzateke. Horretarako, 35.000 €-ko kostu finkoak izango lituzke, eta 17 €-ko kostu aldakorra bizikleta bakoitzeko. Hirugarren urtearen amaieran, makineria salduta, 6.000 € eskuratuko lituzke.
- Enpresak kaxa-fluxu hauek izango lituzke:

Hasierako gastua	Lehenengo urteko kaxa-fluxua	Bigarren urteko kaxa-fluxua	Hirugarren urteko kaxa-fluxua	Hondakin-balioa
70.000	18.000	36.000	38.000	5.000

- Hasierako gastua 40.000 € ordainduko dira litzateke, eta, horretaz gainera, lehenengo urtearen amaieran beste 10.000 € ordainduko lituzke. Inbertsioak kaxa-fluxu hauek emango lituzke:
 - 25.000 € lehengo urtean
 - 40.000 € bigarren urtean
 - 30.000 € hirugarren urteanGainera, inbertsioak mantentze-kostuak lituzke: 4.000 € bigarren urtean, eta 3.000 € ordainduko dira hirugarren urtean.

Enpresak, inflaziorik gabe, bere inbertsioei % 5eko errentagarritasun garbia eskatzen badie eta inflazio-tasa metatua % 3 baldin bada:

Kalkula ezazu:

- Balio eguneratu garbiaren irizpidearen arabera, zer inbertsio egingo luke enpresak?



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2012ko UZTAILA

ENPRESAREN EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2012

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

- Berreskuratze-eparearen arabera (Pay-Back), zer egitasmo hautatuko luke?
- Aurreko bi irizpideetatik, zein da komenigarriena? Zergatik?

B3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 4 puntu.

SOL-AGUA SA enpresak bainujantziak ekoizten ditu. Abenduaren 31n, ondare hau du:

- Ekoizpen-lantegia.....312.500 €
- Bainujantziak ekoizteko oihala, biltegian 17.100 €
- Bezeroek onartutako letrak65.000 €
- Legezko erreserbak85.800 €
- Enpresaren aldeko saldoa bankuan duen kontu korrontean62.400 €
- Tailerra eraikita dagoen lursaila 187.200 €
- Oihalaren hornitzaileei zor dizkien fakturen balioa 30.600 €
- Eskudirua kutxan7.800 €
- Bankuan lortutako mailegua, 3 urte barru itzultzekoa 182.000 €
- Bere instalazioetan egindako garbiketa zor du..... 1.360 €
- Bere bezeroak zor dizkioten fakturak53.300 €
- Makineria erosteagatik epe laburrera ordaintzeko faktura..... 75.900 €
- Biltegian saltzeko dituen bainujantziak.....33.800 €
- Enpresaren makineriaren balioa94.900 €
- Ibilgetuaren amortizazio metatua 118.400 €
- Gizarte Segurantzarekiko zorra.....26.000 €
- Oihalaren hornitzaileei onartutako letrak55.900 €
- Kapital soziala¿???????

Hau eskatzen da:

- a) Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- b) Errotazio-fondoa edo maniobra-fondoa kalkulatzeko, eta emaitza aztertzea.
- c) Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:
 - Diruzaintza edo altxortegia
 - Likidezia
 - Bermea
 - Zorpetzea
 - Ibilgetua

B4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1,5 puntu.

Edungo **defizit publikoari** aurre egiteko, Espainiako Gobernuak **Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)** aldatu du. **Zerga zuzen** hori zerga progresiboa edo gehikorra denez, erreforma baliagarria izango da **errentaren birbanaketa** berria egiteko.

- Defini edo azaldu ezazu azpimarratuta dauden hitzen esanahia
- Aipa ezazu defizit publikoa finantzatzeko beste bideren bat.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

ENPRESAREN EKONOMIA

Ikasleari ariketa bakoitzean bi aukera ematen zaizkio, A eta B. Bi aukerek 4 edo 5 galdera dituzte. Galderak balioesteko, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 3ko 23/2009 DEKRETUAN ekonomia- eta enpresa-gaiekin lotuta eta eskumen gisa azaltzen diren helburuak betetzen diren ala ez ebaluatuko dute zuzentzaileek.

A AUKERA

Bi aukeretan lehenak ekonomiako dibulgazio-testu bat du, komunikabide sozialetatik jasotakoa, eta edukia eta testuko termino tekniko batzuk ulertzea eskatzen da. Galderetan, termino batzuen esanahia aurkeztutako testuaren testuinguruan azaltzea eskatzen da, edo, bestela, testuari lotutako argudio ekonomikoren bat azaltzea. Galdera honek 2 puntu edo **2,5 puntu** balio du, gehienez, goiburuan adierazitakoaren arabera. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

Lehen aukerak beste hiru galdera ditu; haietan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarritzko teknikak jakitea balioesten da. Galdera horiek gehienez **2,5 puntu** edo **2 puntuko** balorazioa dute, goiburuan adierazitakoaren arabera. Teknika egokiak menderatzea nahiz lortutako emaitzak zuzen interpretatzea balioetsiko da.

Azkenik, lehen aukeran baliteke galdera bat egotea ekonomia-terminoen ezagutza eta haien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzeko. Galdera horrek **1,5 puntu** balio du, gehienez. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

B AUKERA

Bigarren aukerak balantze-analisi bat du. Galdera honek **4 puntu** balio du, gehienez. Hauek balioetsiko dira: teknika egokiak menderatzea, emaitzen esanahi ekonomiko eta finantzarioa interpretatzea, eta, batez ere, lortutako informazioa oinarri hartuta enpresa-egoeraren diagnostikoa egitea eta, ratio sinpleen bidez, desorekak eta desdoitzeak gertatuko balira hautemateko gai izatea. Batez ere, ikaslea emaitzen esanahi ekonomikoa ulertzeko eta interpretatzeko gai izatea balioetsiko da. Akats aritmetikoen kasuan, lehenetsuna eman behar zaio ikaslearen arrazoibidearen ebaluazioari, eta ez zenbakizko emaitzaren zuzentasunari.

Bigarren aukerak beste bi galdera ditu; haietan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarritzko teknikak jakitea balioesten da. Galdera horiek gehienez **2,5 puntu** edo **2 puntuko** balorazioa dute, goiburuan adierazitakoaren arabera.

Azkenik, bigarren aukerako galdera batean, ekonomia-terminoak ezagutzea eta haien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzen dira. Galdera horrek gehienez **1,5 puntuko** balorazioa du. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Kalifikatzeko irizpide gisa, alderdi hauek hartu behar dira kontuan, besteak beste: gai honetarako ezarritako gaitasunak ikasleak eskuratuak izatea, enpresaren ekonomiako tekniken ezagutzari eta haiek aplikatzeko gaitasunari dagokionez; argudio ekonomikoak erabiltzea; ekonomia-terminoak jakitea; eta informazio ekonomiko-finantzarioa interpretatzen jakitea. Gaitasunen eskuratze-maila adierazi behar du kalifikazioak.

Oro har, galdera guztietarako, nahikoa izango da galdetzen zaionari bakarrik erantzutea ikasleak. Balorazio positiboa emango zaie haiei: argitasuna, laburtasuna, galderak zehaztasunez erantzutea, azalpena ordenatuta eta egituratuta ematea, erabiltzen den terminologia egokia izatea, prozedura eta baliabide grafikoak erabiltzea —eskemak, marrazkiak, grafikoak, eta abar—, eta galderei arrazoituta erantzutea.

Probetan gehienez 10 puntu lor daitezke; beraz, 0 eta 10 puntu bitarteko puntuazioa lortu ahal izango du ikasleak. Galderetan lortutako kalifikazioen batura izango da probaren azken kalifikazioa. Galdera bakoitzak bi atal edo gehiago izan ditzake; atal bakoitzaren gehienezko puntuazioa bakoitzaren goiburuan adierazten da.

Proba hauetan, ikasleak erakutsi behar du adimen-heldutasuna duela, enpresen oinarrizko arazo ekonomikoak identifikatzeko eta haiei buruz iritzia emateko abilezia duela eta garrantzi sozialeko fenomenoen analisisian matematika-tresnak aplikatzen dakiela. Halaber, ematen zaion informazioa hautatzeko eta interpretatzeko gai izan behar du, enpresen jarduera ekonomikoaren ondorioz sortzen diren arazoak irizpide ekonomikoen arabera analizatzen eta balioztatzen dituela egiaztatzeko.